

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2014ko IRAILAREN 4ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2014ko irailaren 4ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin

Bere ezin etorria azaltzen dute: Aritz Usandizaga Larrañaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2014ko uztailaren 30ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraul aurrera taldearen proposamenaren azterketa, hala bada.**
- 4. Larraulgo Agiñezabal-Handi baserriaren lurretan artisautzarako eraikinean baimendu gabeko lanei buruzko txostenaren berri ematea, hala bada.**
- 5. Larraulen konpostajea 2013/2014 ezarketaren berri ematea, hala bada.**
- 6. J.A.L. jaunak aurkezturiko dokumentazioaren azterketa, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2014 urteko uztailaren 30eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

13/2014 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 5ekoa, Igor Barandiaran zinegotziari Alkate moduan ditudan funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzea, abuztuaren 9tik 20ra, ebazten duena.

14/2014 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 26koa, A.L. eta J.D.M. jaunei Sorozelai 40an bi etxebizitzaren arteko sarrera bakarrean, bi sarrera bereiztuta egiteko obra baimena ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAUL AURRERA TALDEAREN PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA

Une honetan, arratsaldeko 19.45 orduetan, Jon Tejeria eta Karlos Irazu zinegotziak Udalbatza honetara bertarutzen dira.

Ondoren Larraul Aurrera taldeak eginiko proposamena irakurtzen da, ondorengoa diolarik:


“LARRAUL AURRERA TALDEAREN PROPOSAMENA:

Ikusirik Karlos Irazu Muñoa zinegotziak, Agiñezabal handi baserriaren Sorohaundi zelaian, egiten ari den eraikina, aurkezturiko proiektua eta emandako obra baimenetik kanpo burutzen ari dela.

Ikusirik 2014ko uztailaren 30ean egindako Udalbatzarrean, goian aipaturiko obra gelditzeko erabakia hartu zuela, berari, obra geratzeko jakinarazpena 2014ko uztailaren 31an eman zitzaizolarik.

Ikusirik baimendu gabeko obra egin duela eta gelditzeko jakinarazpena jaso ondoren obrarekin jarraitu duela, ondorengoa proposatzen dugu:

1.-Larraul Aurrera Taldeak, Karlos Irazu Muñoa zinegotziari eskatu nahi dio, bere karguari uko egin dezan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2.-Larraul Aurrera Taldeak, Herri Aukerako beste bi zinegotzietan eskatu nahi die, aurreko eskaerarekin bat egin dezaten.

3.-Aurreko bi puntu hauek betetzen ez badira, Larraul Aurrera Taldeak, 2011ko ekainaren 11an egindako Udalbatzarrean, "Herri Aukera eta Larraul Aurrera taldearen arteko akordioa bertan bera uztea erabakiko luke".

4.-Akordioa bertan behera geratuko balitz, Udalbatzara joango diren gaien lanketa eta Udaletxean sortzen diren gai desberdinak, bi taldeak bakoitzak beren kabuz landuko dituzte, Udalbatzetan erabakiak hartuko direlarik.

Bukatzeko, Udalbatza honetan, puntu honetan hartutako erabakiak, herritarrei berri ematea nahi dugu."

Segidan Tejeria zinegotziak hartzen du hitza azaltzeko Larraul aurrera taldearen proposamena hori bada beraiek hartu dezatela erabakia.

Beraz, Larraul aurrera taldearen proposamena, Mujika, Barandiaran, Jauregi eta Aranzabal Alkate eta zinegotziaren aldeko botoekin onesten da, erabaki hau bando bidez herritarrei jakinaraziko delarik.

Bukatzeko Tejeria zinegotziak dio berari iruditzen zaiola Larraul bezalako herri txiki batean gauzei inportantzia eman behar zaiela, baina ez duela ulertzen politika tartean ez dagoen herri batean nola eskatu daitekeen herriko zinegotzi baten dimisioa, kontutan hartuta beste taldeko lau zinegotzietatik hiru kanpokoak direla.


LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO AGIÑEZABAL-HANDI BASERRIAREN LURRETAN ARTISAUTZARAKO ERAIKINEAN BAIMENDU GABEKO LANEI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ondoren Udal Teknikariak, 2014ko abuztuaren 22an, eginiko txostena irakurtzen da, ondorengo diolarik:

"LARRAULGO AÑEZABAL-HANDI BASERRIAREN LURRETAN ARTISAUTZARAKO ERAIKINEAN BAIMENDU GABEKO LANEI TXOSTENA

Larraulgo udalak Añezabal Handi baserriaren Sorohaundi zelaiko eraikinean proiektutik kanpo eta baimenik gabe egiten ari diren lanak ikusirik, eta gelditzeko agindua luzatu ondoren, eraikinaren egoera zein den deskribatzen duen txosten teknikoa eskatzen du. Bertara joan, dagoena ikusik eta baimena eman zitzaien proiektua aztertu ondoren, ZERA ADIERAZTEN DUT:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2014-ko urtarrilaren bukaerako udal batzarrean eta Iker Gomez Iborra arkitektoak sinatutako “egiteko proiektuarekin” K.I.M. jaunari Añezabal Handiko lurretan artisautzarako eraikin bat egiteko baimena eman zitzaion.

Baimenaren baldintzetan, Udal Teknikariak edozein unean obraren garapena aztertu ahal izango duela esaten zen, exekutututako obra onartutako eskaera edo proiektuari, obra baimenari eta indarrean dagoen araudiari egokitzen den ikusteko.

2014-ko uztailaren 30eko goizean, txosten hau sinatzen duen teknikaria obran azaltzen da lanen egoeraren berri jasotzeko. Bertan, egin diren lanak proiektuko eta baimendutakoekin bat ez datozela ikusten da;

- Egindako eraikina, oin bakarrekoa izan beharrean 2 planta ditu. Gaineko plantan, lehioak zabaldu dira.
- Eraikinaren egituraren aldaketa bat ematen da ere; egurrezko pilareak erabili beharrean “Termoarcilla” moduko blokeak erabili dira perimetro paretetan.
- Eraikinaren zentzua planoetan azaltzen denarekin ez dator bat, portxea kontrako aldean egin da.
- Baimendutako planoetan azaltzen diren neurriak eta egindakoak ez datoz bat egindakoarekin; Eraikin itxia pixka bat zabalagoa eta luzeagoa da (30zm eta 80zm gutxi gora behera), portxea berriz, txikiagoa da. Gailurreko altuera ere zerbait aldatu da.
- Teilatuari txori-toki moduko elementu bat egin zaio goiko oinaren sarrera moduan.

Egun berdinean egindako Ohiko udalbatzarrean, lanak gelditzeko akordioa hartzen da. K.I. jaunak hurrengo egunean jasotzen du jakinarazpena.


2014-ko abuztuaren 14-ean bigarren bisita bat egiten da Sorohaundiko zelaira obra gelditua dagoen edo ez ziurtatzeko.

Eraikinaren egoeran aldaketak sumatzen dira, teilatua guztiz bukatua dago (uztaileko bisitan oholak jartzen ari ziren) eta portxeko egurrezko egituran habe horizontalak jarri dira. Momentu horretan ez da obra edo lan mugimendurik ikusten eta eraikuntzako material guzia jaso dago.”

Ondoren Aranzabal zinegotziak hartzen du hitza eta azaltzen du, I. jaunari obra gelditzeko jakinarazpena eman zitzaiola eta obrarekin jarraitu zuela. Beraz, jakinarazpenaren bigarren puntuan jasotzen den isuna jartzea proposatzen du, Alkatea proposamen honekin guztiz ados agertzen delarik.

Tejeria zinegotziak esaten du jakinarazpena ematen denetik egun bat bakarrik lana egin dutela.

Ondoren, Irazu zinegotziak dio demostratu dezakeela hilaren leian nola zegoen teilatua, eta habe horizontalak Alkatea jakinarazpena ematea joan zenean bertan zeudela jarrita. Beraz bukatzeko dio, jendea ondo informatuta egotea nahi duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Mujika Alkateak Irazu zinegotziari esaten dio berak eraman ziola obrak gelditzeko jakinarazpena eta lanean jarraitu zuela, egun batean edo bitan teilatua guztiz bukatu zuelarik.

Ondoren jakitera ematen da, Irazu zinegotziak Ion Ander Leñena Ingniero Agronomoak eginiko legeztapen proiektuaren zirriborroa aurkeztu duela Udaletxe honetan.

Alkate-Lehendakariak segidan esaten du, irailaren 30erarte luzatzen zaiola, ezkutuko obrak legezatzeko proiektua Udaletxe honetan aurkezteko epea, batzarkideak aurkakorik esaten ez dutelarik.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULEN KONPOSTAJEA 2013/2014 EZARKETAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Spora Ingurumen zerbitzuak aurkeztu duela, Larraulgo udalerrian Konpostaje organikoaren lehenengo ezarketari buruzko txostena. Bertan azaltzen da, lehenengo ezarketa fasean, 41 ezarketa egin direla, egiten duten balorazioa oso baikorra izanik.

Alkate jaunak batzarkideei jakitera ematen die, Ostatua eta Elkartearen ezarketa egiteko, oraindik tokia ez dutela zehaztu, beraz, Sporakoekin hitzegino du, zein leku izan daitekeen aproposena zehazteko(ahal bada partikularren terrenoak ukitu gabe) eta ondoren batzarkideei berri emango die.

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dute.


SEIGARREN PUNTUA

J.A.L.JAUNAK AURKEZTURIKO DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.A.L. jaunari, Larraulgo I. poligonoko 135 lursailean txabola bat egiteko obra baimena eman zitzaiola 2014ko uztailaren 3an eginiko Udalbatzarrean. Obra baimen hau baldintzatu zitzaion Udal Teknikariak eginiko txostenean jasotakoari eta obrarekin ezin zitekeela hasi eskaturiko dokumentazioa Udal honetan aurkeztu eta honek on iritzia eman arte.

Ikusirik J.A.L. jaunak Udaletxe honetan aurkeztu dituela, txabola egiteko eskatutako planoak eta aurrekontua.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A.L.G. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da Larraulgo poligono 1eko, 135 lursailean txabola bat egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak, 2014ko ekainaren 25ean eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.


BIGARRENA:- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KOLDO JAUREGI	217,80
LASURTEGUI	287,98
TOLOMENDI	122,40
SAINT-GOBAIN	268,55
LIDOINSA	365,72
DIONISIO ORMAZABAL	14,02
BERRI LANTEGIA	217,63
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	2.149,48
MANPEL	25,65
FERRETERIA BARBE	56,88
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	168,72
TOLOSALDEA GARATZEN	1.599,44
GOIKOETXEA ALBISU	63,10
GAS NATURAL FENOSA	164,54
GAS NATURAL FENOSA	62,22
GAS NATURAL FENOSA	319,48
GAS NATURAL FENOSA	141,33
GAS NATURAL FENOSA	157,23
GAS NATURAL FENOSA	230,57
GAS NATURAL FENOSA	32,56
GAS NATURAL FENOSA	363,59
GAS NATURAL FENOSA	183,54
GAS NATURAL FENOSA	54,03
MOVISTAR	136,02
MOVISTAR	19,02
MOVISTAR	50,94



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.472,44** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1. LARRAULGO GAINZABAL ETXEKO LURSAILEAN BORDA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, K.J.

Ikusirik K.J. jaunak eginiko eskaera, non, Larraulgo Gainzabal etxeke lursailean, 20 m²-ko borda, 20 m²-ko estalpe batekin egiteko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako txabolaren krokisa eta plano bat aurkezten du.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2014ko uztailaren 2an eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO GAINZABAL ETXEKO LURSAILEAN BORDA BAT EGITEKO ASMOARI TXOSTEN TEKNIKOA

K.J.S. jaunak, Larraulgo Gainzabal etxeke lursailean borda bat egiteko asmoa azaltzen du. Honetarako bordak izango duen itxuraren marrazki pare eta batazbesteko aurrekontu bat aurkezten ditu obra baimena eskuratzeko. Dokumentazioa azterturik eta eskaerari erantzuten, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Eskarian, 20m² ko azalera eraikigarria izango duen borda bat egin nahi dela esaten da, kokapena eraitsiko den estalpearen berdina izanik.

Borda honek, azalera zehaztu gabeko portxe ireki bat izango luke. Eraikinaren erabilera, sutako egurra, hegaztiak eta baratzako tresnak gordetzeko izango da.


Paretak bertako harri eta egurrezkoak izango direla esaten da, teilatuaren egitura egurrezkoa litzateke eta honen bukaera teilazkoa.

Borda egiteko aurkeztu den batazbesteko aurrekontua 3.000€-koa da.

1 poligonoko 381 lursaila, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, D.20 produkzio zonaldean. Katastroaren arabera, lursailaren azalera 3.808m²koa da.

Larraulgo Arau Subsidiarioen lur hiritargarriezinaren 72º artikulua esaten duen bezala, nekazal erabilera ez profesionalizatuentzat gehienez egin daitekeen txabolek 20m²-ko azalera eraikigarria izango dute, beti ere txabola honi loturiko lursailak 2.500m² baino gehiago baditu.

Artículo 72.- Usos agrarios no profesionalizados



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

- a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500m².
- c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.
- d) **Superficie máxima construida: 20 m² para las txabolas destinadas a la guarda de aperos.**
- e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.”

Kanpo itxurari buruzko **48º artikulua** berriz honela dio:

Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieren ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.


-Como material de cubierta se utilizará preferentemente **la teja cerámica**, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

-Las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.

Honen arabera, dokumentazioan azaltzen den baratzeko lursailaren azalera, nekazaritzako tresnak gordetzeko eraikinaren materialak eta kanpo itxura, egokiak dira.

Bordaren kokapenaz, eta Larraulgo 69º artikuluaaren arabera, eraikina ondoko partzelatik 8m-tara egon beharko da gutxienez, beste landa lurteko eraikinak ez direnen arteko gutxieneko distantzia 50m-koa izanik.

Larraulgo araudian ez da animalien babeserako estalpearen gehieneko azalera zehazten.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 38/1999 Eraikinen Antolamenduen Legearen 2.2 artikulua, proiektua behar duten eraikinak zehazten ditu;

“2.2. Tendrán la consideración de edificación a los efectos de lo dispuesto en esta Ley, y requerirán un proyecto según lo establecido en el artículo 4, las siguientes obras:

a)Obras de edificación de nueva construcción, excepto aquellas **construcciones de escasa entidad constructiva** y sencillez técnica que no tengan, de forma eventual o permanente, carácter residencial ni público y se desarrollen en una sola planta”.

- Kode Teknikoaren, lehenengo zatiaren 2.2 artikulua berriz zera dio;

“1. El CTE será de aplicación, en los términos establecidos en la LOE y con limitaciones que en el mismo se determinan, a las edificaciones públicas y privadas cuyos proyectos precisen disponer de la correspondiente licencia a autorización legalmente exigible.

2.El CTE se aplicará a las obras de edificación de nueva construcción, excepto a aquellas construcciones de sencillez técnica y de **escasa entidad constructiva**, que no tengan carácter residencial o público, ya sea de forma eventual o permanente, que se desarrollen en una sola planta y no afecten a la seguridad de las personas.

Sinatzen duen teknikariaren iritziaren arabera, eraikin itxiaren okupazioa bikoiztearen gainditzea ez dator nekazaritzarako erabilera ez profesional bati lotu eta proiektu teknikoa beharko luke, dagokion tramitazioarekin.


Artículo 62.-Tramitación de licencias en Suelo No Urbanizable

La tramitación de licencias en el suelo no urbanizable se realizará siguiendo el procedimiento señalado en el artículo 14 de las presentes ordenanzas para el suelo urbano.

Para la solicitud de licencias de realización de obras e instalaciones que guarden relación con el destino de la finca sobre la que se asienten, basta la presentación en el Ayuntamiento del correspondiente proyecto técnico, visado por el respectivo colegio profesional –en el caso de que la envergadura de la obra así lo exija– acompañado del informe favorable del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

De cualquier forma, en el caso de que las obras, a juicio del Ayuntamiento, no exijan por sus características y envergadura la redacción de un proyecto técnico, bastará adjuntar a la solicitud de licencia correspondiente un plano de situación y otro de emplazamiento a las escalas especificadas, pudiendo el Ayuntamiento, si lo considera oportuno, dispensar de la obligación de presentar el informe del Departamento de Agricultura del organismo competente.

En todas las solicitudes de licencia de obras o actuaciones en el suelo no urbanizable, juntamente con el proyecto o documentación de solicitud correspondiente, se presentará un plano de situación a escala 1:5000.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurrekoa ikusirik eta bordaren baimena burutu ahal izateko, eraikin itxia eta estalpearen ezaugarriak zehaztu beharko dira, tramitazio bat edo bestea jarraitzeko.

Estalpeak baratzen tresnak gordetzeko eraikin itxia bikoiztuko ez balu, bien neurriak, alturak, kanpo itxura, etbr...zehazten dituen marrazki, bordaren kokapen zehatza eta 69º artikulua dioena betetzen duenaren adierazten grafikoa azaltzen duen planoak ekarri beharko da udaletxera estalpearen eta eraikin itxiaren aurrekontuarekin batera.”

Udal teknikariak bere txostenean jasotzen duen dokumentazioa ekarri duela ikusirik eta bordak 20m2+20m2ko estalpea egin nahi dituela ikusirik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.J. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Gainzabal etxeko lursailean, 20 m2-ko borda bat, 20 m2-ko estalpe batekin egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

8.2.HEZKIDE ESKOLAN EGINGO DEN BATUKADA IKASTAROAREN BERRI EMATEA, HALA BADA


Alkate jaunak hitza hartzen du batzarkideei jakitera emateko, datorren aste bukaeran, irailaren 13 eta 14ean, Hezkide eskolan batukada ikastaro bat izango dela. Ondoren, azaltzen du, antolatzaileak proposatu dutela larunbata arratsaldean, ikastaroa amaitu ondoren herrian zehar erakustaldi bat eman dezaketela, herriko plazan erakustaldiari amaiera emanaz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Irailaren 13an batukada ikastaroa amaitu ondoren, herrian zehar erakustaldi bat emateko onespina ematea, erakustaldia herriko plazan amaituko delarik, gaueko 10ak baino lehen.

BIGARRENA: Erabaki honen berri herritarrei ematea bando bidez.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8.3.OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK AURKEZTUTAKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Ostarbi Eraikuntzak eta zerbitzuak aurkeztutako faktura, Katilutxulo Elkartearen atzekaldean mahaia bat eta bi aulki egiteagatik.

Ikusirik Larraulgo Udalak Katilutxulo Elkartearekin adostutako erabakia, non Elkartearen atzekaldean mahai bat eta bi aulki jartzearen kostua, bakoitzak kostuaren %50 bere kargu egingo zela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ostarbi Eraikuntzak eta zerbitzuak aurkezturiko faktura onestea, 3.339,12 eurotako kostua duena, Katilutxulo Elkartearen atzekaldeko zelaian mahai bat eta bi aulki jartzeagatik.

BIGARRENA: 3.339,12 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Katilutxulo Elkarteari, Ostarbi Eraikuntzak eta zerbitzuak aurkezturiko faktura igortzea, fakturaren % 50 a Udaletxe honi ordaindu dezan.

LAUGARRENA: Aipaturiko mahai eta aulkiak jartzeko auzolanen ibilitako herritarren hamaikakoa, Udalak bere gain hartzea.


BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Katilutxulo Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Irazu zinegotziak hartzen du hitza batzarkideei ondorengo galderak egiteko:

1.-Irazu zinegotziak Alkate jaunari galdetzen dio, bilera bat eskatu ziola ezkutuko obrak gelditzeko jakinarazpena jaso ondoren, festak zirela eta hauek amaitzean berriro deitu eta bilera egiteko eskatu zion. Jakin nahi duena da zergatik ez zitzaien zinegotzi guztiei abisatu eta zergatik ez zion bilera hori egiteko ordurik eman.

Alkateak, Irazu zinegotziari erantzuten dio esanaz, Tejeria eta Usandizaga zinegotzien disponibilitatea bazekiela Irazu zinegotziak horrela jakitera eman ziolako. Berak, Barandiaran eta Jauregi zinegotziei abisatu zuela (Arantzabal zinegotzia kanpoan zegoelako) eta hiruen artean erabaki zutela bilera hori ez egitea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2.-Irazu zinegotziak galdetzen du ea astearteko bilera zergatik ez den egin.

Alkateak erantzuten du esanaz, bere taldeak proposamen bat aurkeztu duela Udalbatzarretik pasatzeko. Ikusi nahi zutela ea egindako proposamenean aurkezten ziren puntuak onartzen ziren edo ez, astearteko bilerekin jarraitzeko edo ez.

Irazu zinegotziak azaltzen du, astearte arratsaldean izan zuela berri, ez zela bilerarik izango eta Udalbatzarrera zijoazten gaien berri ez zutela, besteetan astearteetako bileran tratatzen direlako.

Alkateak Irazu zinegotziari erantzuten dio esanaz, naiz eta asteartean bilerarik ez izan Udalbatzarrean tratatzen diren gaiak Udaletxean dituztela hauek ikusgai.

3.-Irazu zinegotziak batzarkideei galdetzen die ea badakiten zer dioen bere garaian hartutako akordioak.

Alkateak erantzuten dio esanaz badakiela zer jartzen zuen.

Irazu zinegotziak dio puskatu den akordiotik ez dela dena kunplitu.

Tejeria zinegotziak hitza hartzen du eta esaten du zinegotziaren dimisioa eskatzea lekuz kanpo dagoela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA